

# Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena



ararteko

Herriaren Defendatzailea  
Defensoría del Pueblo

# Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

*Munduko neska-mutiko guztiak eskubide berberak dituzue.  
Eskubideok nazioarteko itun batean jasota daude.  
Itun hori Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena da  
eta munduko ia herrialde guztiak onartu dute.*



**Vitoria-Gasteiz 2014**

### **Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:**

- web gunean
- posta elektronikoz eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz  
(Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Azaleko irudia: muxotepotolobat

[www.muxotepotolobat.com](http://www.muxotepotolobat.com)

Ararteko erakundearen itzulpena eta moldaketa

Fotokonposaketa eta inprimaketa: EPS, S.L.

Paper ekologikoa

L.G.: VI 691-2014

## **1. Umeak**

Hitzarmen honetan jasotako eskubideak dituzu, 18 urte bete ez badituzu.

## **2. Eskubide guztiak, ume guztientzat**

Eskubide hauek guztiak izateko eskubidea duzu, edozein izanda ere zure arraza, kolorea, sexua, jatorria, hizkuntza, erlijioa, iritzia, maila ekonomikoa edo gaitasun fisiko edo intelektuala. Estatuak zainduko du zuetako inork bereizkeriarik ez jasatea.

## **3. Umeak lehenengo**

Umeei dagokizuen edozein gaitan, Estatuak lehenda-bizi umeen beharrak hartu beharko ditu kontuan, horretarako eskubidea duzu eta.

## **4. Bete beharreko eskubideak**

Eskubidea duzu Estatuak zure eskubideak zaindu ditzan eta beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu dadin, herrialde horietan ere zure eskubideak errespeta daitezen.

## **5. Gurasoen zainketa eta gidaritza**

Zure gurasoek edo zure legezko arduradunek zu zaindu eta bideratu behar zaituzte, horretarako eskubidea duzu eta. Gainera, horretarako zailtasunak badituzte, Estatuak lagundu egin behar die.

## **6. Zure bizitza eta garapena**

Estatua zure bizitzaz eta garapen egokiaz arduratzeko eskubidea duzu.

## **7. Izena eta nazionalitatea**

Jaio eta segituan, izen bat hartzeko eta herrialde bateko kide izateko eskubidea duzu.

## **8. Identitatea babestea**

Zure nazionalitatea, izena eta familiarteko harremanak babesteko eskubidea duzu. Inork ezin du zure izena eta identitatea erabili zure baimenik gabe.

## **9. Familiarekin duzun harremana**

Neska edo mutiko bakar bat ere ez dute bereizi behar bere gurasoengandik, umearen onerako ez bada

behintzat. Hala gertatzen bada, gurasoengandik bereizi baino lehen, entzuna izateko eskubidea duzu, baita zure gurasoek ere. Zure amagandik edota aitagandik bananduta bizi behar baduzu, berarekin harremanetan jarraitzeko eskubidea duzu. Zure aitak edo amak zugandik banandu behar izan badu, non dagoen jakiteko eskubidea duzu.

## **10. Familia berriro bateratzea**

Zure gurasoak eta zu herrialde desberdinetan bizitzen ari bazarete, ahalik eta azkarren beraiekin elkartzeko eskubidea duzu.

## **11. Legez kontrako atxikitzeak eta lekualdatzeak**

Estatuak neurriak hartu behar ditu beste herrialde batera legez kontra eraman ez zaitzaten edo herrialde hartan legez kontra atxiki ez zaitzaten. Horretarako eskubidea duzu.

## **12. Iritzia**

Zure iritzia askatasun osoz emateko eskubidea duzu, eta iritzi hori kontuan hartu beharko da dagozkizun gai guztietan.

### **13. Adierazpen askatasuna**

Askatasun osoz mintzatzeko eskubidea duzu, hau da, edonolako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabalatzeko eskubidea, betiere beste norbaiten eskubideei kalte egiten ez badiete.

### **14. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna**

Zeure ideiak, sinesmenak eta erlijioa izateko eskubidea duzu. Gurasoek zu gidatzeko eskubidea eta betebeharra dute, eskubide hori erabil dezazun.

### **15. Elkartzeko askatasuna**

Beste ume batzuekin elkartzeko eta batzarrak egiteko eskubidea duzu.

### **16. Bizitza pribatua**

Eskubidea duzu zure bizitza pribatua errespetatu dezaten, bai eta zure bizilekua eta gutunak ere. Gainera, inork zure ospea eta izena ez laidotzeko eskubidea duzu.

### **17. Informazio egokia jasotzea**

Eskubidea duzu komunikabideetatik informazioa jasotzeko eta zure ongizateari kalte egin diezaiokkeen

informaziotik babestua izateko. Eskubidea duzu zuretzat egokiak diren liburu eta programen ekoizpena susta dezaten.

## **18. Gurasoen erantzukizuna**

Zure gurasoek zure zaintzaz arduratu behar dute eta Estatuak gurasoei lan horretan lagundu behar die, horretarako eskubidea duzu eta.

## **19. Tratu txarrak**

Zure aitak, amak edo zaintzen zaituen beste edonork abandonatzen bazaitu, tratu txarrak ematen badizkizu, esplotatu edo indarkeriaz tratatzen bazaitu, horren kontra babestua izateko eskubidea duzu.

## **20. Familia-zaintzarik gabeko umeak**

Babesa eta laguntza berezia jasotzeko eskubidea duzu, baldin eta zure familiak zu behar bezala zaintzerik ez badauka edo familiarengandik bereizita egon behar baduzu, aldi baterako edo betiko.

## **21. Adopzioa**

Familia izateko eskubidea duzu. Adoptatua bazara, eskubidea duzu ondoen zainduko zaituen familia aukera



dezaten, eta inork ez dezan egoera horretatik bidegabeki onurarik atera.

## **22. Errefuxiatutako umeak**

Beste herrialde batean errefuxiatuta bizi bazara, laguntza eta babes berezia jasotzeko eskubidea duzu. Era berean, eskubidea duzu hartzen zaituen herrialdean zure eskubide guztiak mantentzeko eta, ahal bada, zure familiarekin elkartzeko.

## **23. Ezintasunen bat duten umeak**

Ezintasun fisiko edo intelektualik baduzu, ahalik eta autonomiarik handiena lortzeko zainketa eta hezkuntza jasotzeko eskubidea duzu, baita beste umeekin bizitzeko eta gizartean aktiboki parte hartzeko eskubidea ere.

## **24. Osasuna eta mediku zerbitzuak**

Elikadura egokia, edateko ona den ura, kutsatu gabeko ingurunea eta ez gaixotzeko zainketak jasotzeko eskubidea duzu; behar duzunean, medikuen arreta jasotzeko eskubidea; baita ere Estatuak ahal duen guztia egin dezan zure osasunerako kaltegarriak diren usadiozko jarduerak bukarazteko.

## **25. Barneratzea**

Osasun fisikoa edo mentala dela medio, familiatik kanpo dagoen establezimendu publiko batean sartu bazaituzte, eskubidea duzu zure egoera aldian-aldian berraztertua izateko.

## **26. Gizarte babesa**

Gizarte babesa eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea duzu.

## **27. Bizi-maila**

Fisikoki, mentalki, espiritualki, moralki eta sozialki modu egokian hazteko behar diren baliabideak jasotzeko eskubidea duzu. Gainera, Estatuak beharrezko laguntzak eman behar dizkio zure familiari, eskubide hori erabili ahal izan dezazun.

## **28. Hezkuntza**

Eskubidea duzu derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza jasotzeko, baita goi mailako hezkuntzan berdintasunean sartzeko ere. Gainera, eskolako elkarbizitza arauak zure duintasuna errespetatu behar dute, pertsona zaren aldetik.

## **29. Hezkuntzaren helburuak**

Zure izaera eta gaitasunak ahalik eta gehien garatuko dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea duzu. Orobat, eskolak irakatsi behar dizu giza eskubideak errespetatzen eta ardura zeure gain hartuta bizitzen. Horretarako, oinarritzat hartuko ditu ulermena, bakea, tolerantzia, gizonen eta emakumeen berdintasuna, beste herri eta kulturekiko eta ingurumenarekiko errespetua.

## **30. Gutxiengoak eta herri indigenak**

Gutxiengo etniko edo herri indigena batekoa bazara, eskubidea duzu zeure kultur bitzitza garatzeko, ohiturak eta hizkuntza erabiltzeko.

## **31. Aisia, jolasa eta kultur jarduera**

Jolasteko, atsedeen hartzeko eta kirol, arte edo kultura zaletasunak burutzeko eskubidea duzu.

## **32. Lana**

Lan batzuetatik babestua izateko eskubidea duzu, baldin eta zure osasunerako kaltegarriak edo arriskutsuak badira edo ondo hazi, jolastu edo ikastea galarazten badizute. Gainera, baimendutako adina bete arte, lanik ez

egiteko eskubidea duzu. Lanean ari bazara, zure laneko ordutegiak eta baldintzak modu egokian arautuak izateko eskubidea duzu.

### **33. Drogak erabiltzea eta trafikatzeara**

Eskubidea duzu drogen legez kontrako erabileratik babestua izateko, eta drogen ekoizpenean edo legez kontrako trafikoan zu ez erabiltzeko.

### **34. Esplotazio sexuala**

Esplotazio eta abusu sexualetatik babestua izateko eskubidea duzu (prostituzioa eta umeak pornografia-jardueretan erabiltzea barne hartuta).

### **35. Haurrak saltzea, salerostea eta haiekin trafikatzeara**

Estatuak neurri egokiak hartu behar ditu zu bahitu edo sal zaitzaten galarazteko, horretarako eskubidea duzu eta.

### **36. Beste esplotazio mota batzuk**

Beste edozein esplotazio motaren aurrean, babestua izateko eskubidea duzu.

### **37. Tortura eta askatasunaz gabetzea**

Tortura, zigorrak edo tratu anker edo iraingarriak ez pairatzeko eskubidea duzu. Biziarteko kartzela-zigorrik edo heriotza-zigorrik ez jasotzeko eskubidea ere bai. Kartzelaratua ez izateko eskubidea duzu, beste neurriren bat hartzerik baldin badago, baina, edonola ere, kartzelaldiak ahalik eta laburrena izan behar du. Egoera horretan, eskubidea duzu pertsona nagusietatik aparte egoteko, gizalegez tratatua izateko, zure familiarekin harremanetan egoteko eta laguntza juridiko azkar eta egokia jasotzeko.

### **38. Gatazka armatuak**

Baimendutako adinera heldu aurretik, gatazka armatuetan zuzenean ez parte hartzeko eskubidea duzu. Zure komunitatean gatazka armatu bat gertatzen bada, babes berezia jasotzeko eskubidea duzu.

### **39. Birgaitzea eta birgizarteratzea**

Abandonua, abusua, esplotazioa edo beste indarkeria mota batzuk jasan badituzu, tratamendu berezia jasotzeko eskubidea duzu, sendatu eta berriz gizarteratuko zarela ziurtatzeko.

#### **40. Adin txikikoen arloko Justizia Administrazioa**

Delitu bat egitea leporatzen badizute edo erruduntzat jotzen bazaituzte, eskubidea duzu duintasunez tratatua izateko eta berme guztiekin defendatua izateko.

Ahal den guztietan, zu auziperatzea eta erakunderen batean sartzea eragozteko eskubidea duzu. Beti daukazu eskubidea laguntza jasotzeko, berriro besteekin batera bizi ahal izan zaitezen.

#### **41. Hitzarmena hobetzen duten legeak**

Hitzarmen honetaz aparte, zure eskubideak babesteko mesedegarriagoa den beste lege propioen bat baldin badago, eskubidea duzu hura ezar dadin.

#### **42-54. Hitzarmena hedatzea eta betetzea**

Estatuak Hitzarmenaren berri eman behar die umeei eta gizarte osoari. Gainera, Hitzarmena ezartzeko beharrezkoak diren izapideak egin beharko ditu, horretarako eskubidea baituzu.

Haurren Eskubideen Batzordeak ikuskatu eta aztertzen du ea estatuek betetzen dituzten hartutako konpromisoak, haurrek beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.

*Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaz gain, badira haurren eskubideen gaineko nazioarteko beste agiri batzuk ere, herrialde batzuek beren borondatez sinatu dituztenak.*

- *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari dagokiona.*
- *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari dagokiona.*
- *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, komunikazio-prozedura bati dagokiona.*

**Bai protokoloak, bai Hitzarmenaren testu osoa, Arartekoaren web orrialdean kontsulta daitezke ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)).**

Harrera zuzeneko bulegoak

**Araban**

Prado, 9

01005 Vitoria - Gasteiz

Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

**Bizkaian**

Albia eraikina. San Bizente, 8 - 11. solairua

48001 Bilbao

Tel.: 944 23 44 09 • Faxa: 944 241 844

**Gipuzkoan**

Askatasunaren hiribidea, 26 - 4.a

20004 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943 42 08 88 • Faxa: 943 427 297

[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)